

## Igor Stravinsky.- "*Udaberriaren sagaratzea*"

*Udaberriaren sagaratzea* izan zen XX. mendeko estetika musikalaren bideak markatu zituzten obretako bat.

1913an estreinatu zen Parisen, eta musika obra bat jotzean historian sekula izan den eskandalurik handiena piztu zuen. Sarreraren lehen konpasarekin (fagotaz tonu oso zorrotzean jotako esaldi negartsu bat, kornoaren nota eutsi baten laguntza sumingarriaz), gaitzespen adierazpenak hasi ziren aditzen entzuleen artean. Protestak handitu egin ziren, oihala jaso zutenean eta Nicolas Rörich margolariaren dekoratua azaldu zenean. Apur bat geroago, protesta ozen eta gogor batzuek ito zuten orkestraren hotsa. Pourtalèseko kondesa, ospetsua Pariseko antzerki giro garrantzitsuenetan, harro-harro irten zen antzokitik, esanez ez zela prest, hirurogei urterekin, inork adarra jo ziezaion. Camilo Saint Saëns eta Theodor Dubois konpositore eta frantses musikaren jaun gorenek ozen eta garbi agertu zuten beren arbuioa. Bitartean, Ravelek zioen obra jeniala zela, Debussyk isiltzeko eskatzen zuen musika zoragarri hura entzun zedin eta Florent Schmidtek ergela deitu zion Austriako enbaxadoreari.

Ezbairik gabe, musika hark zeharo astindu zituen entzuleak. Stravinskyk Pariseko aretoetan ohi zirenak baino adierazpide bitxiagoak eta bortitzagoak erabiltzen zituen. *Udaberriaren sagaratzea* indar primitibozko eztanda indartsu bat da; melodiarik kasik ez da, eta tonalitate bitxiak ditu: ekialdeko eskalak, modalitate liturgikoak eta kromatismo nabariak; harmoniak ausart eta zirikatzaileak dira; izaera nagusia erritmikoa da, erritmo barbaro, fantastiko eta pizgarria; konpasa etengabe aldatzen da. Eta hori guztia, orkestra erraldoi batekin: zurezko 23 instrumentu, metalezko 19, bost tinbal eta perkusio asko.

Entzuleen eta kritikaren iritzia laster aldatu zen. Handik urtebetera jo zen obra berriro, kontzertu bertsioan, eta sekulako txaloak jaso zituen. Harrezkero, Musikaren Historian garai berri bat markatu duten obretako bat daukate denek.

Obrak badu bere argumentua, eta bi zati ditu:

1.- Lurraren gurtza.- Gazte batzuk andre xahar baten inguruan daude. Andreak Naturaren sekretuak dakizki, eta haiak azaltzen hasten da. Ibaitek neska batzuk datoz, eta biribilean dantza egiten dute. Lagun talde bat ageri da, apaiz santu eta zuhur bat buru dela, eta apaizak lurra bedeinkatzen du. Astiro, Lurra gurtzeko dantza batean hasten dira erritmikoki mugitzen guztiak.

2.- Oparia.- Dontzeiletako bat Udaberriari oparizat eskaintzeko biktimatzat aukeratzen dute. Lurra garbitzen dute haren inguruan, eta antzinako espirituak deitzen diete. Gazteak dantzan ari dira, eta zaharrek opari-dantza egiteko tokia inguratzen dute poliki-poliki. Biktima gazteari dantza bizi eta basati bat dantzarazten diote, harik eta leher eginda erori eta hiltzen den arte.

*Sabin Salaberr*